

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

**/RT/ TALDEEN BILAKABIDE DIAKRONIKOA ETA
ERRONKARIERAREN LEKUKOTASUNA:
IRUDIA(K) FINTZEN**

Leyre Rojo Horrillo
Euskal Ikasketak
2021/2022

Tutorea: Joseba A. Lakarra

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila
Letren Fakultatea
UPV/EHU

LABURPENA

Euskararen historian eztabaidatu den fenomenoetako bat *n-/l-* ondoko herskariaren oposaketa izan da. Zenbait ikertzailek berezitasun honen arabera isoglosa garbia irudikatu izan dute mendebaldearen eta ekialdearen artean. Honetaz aparte, mugaren bi aldeetan *hilko* edo *Jainko* bezalakoak aurkitzeagatik, albokariaren eta sudurkariaren ondoren leherkari ahoskabea hotsik zaharrena dela esan ohi da. Era berean, erronkariaren berezitasun honen gordetzailerik defendatu da, *borontate* edo *alte* “egitura zaharrak” gorde izan dituelako. Haatik, Mitxelenak (1961) kontrako azalpena iradoki zuen –nahiz gero ez garatu– hau da, bere ustez sudurkariaren eta albokariaren osteko herskari ahostuna izan daiteke hotsik zaharrena. Ildo honetatik, Lakarrak (2013, 2014) Mitxelenaren alde zenbait argudio ematen ditu eta guk erronkariaren ezaugarri hau diakronikoki azaltzeko asmoz, ikerbide honi ere heltzea erabaki dugu. Horretarako, Erronkariko eta Zuberoko hizkeren lekukotasun diren Gabriel Etxart eta Miguel Rosen gutunak izan ditugu aztergai.

Baliatuko dugun corpusa aurretiaz deskribatzea ezinbestekoa iruditu zaigu. Horregatik, Etxart eta Rosen bizitzen azalpenekin batera, corpusa nolakoa den ere zehaztu dugu. Horrela, eskutitz batek bi zirriborro dituela ohartu gara eta honen garrantzia azpimarratu dugu horietako batean Rosek Etxarten hizkerara hurbiltzeko ahalegina egiten duelako. Gainera, berezitasun honek ondoren aztertu dugun *n-/l-* ondoko leherkariaren fenomenoan eragina izan dezakeela jabetu gara.

Honen ostean, herskariaren ahostun/ahoskabe bilakabideari heldu diogu. Horretarako, Rosen gutunaren gaineko analisia burutu dugu, baina Etxartenak ere baliagarriak izan zaizkigu eta hauei erantsi nahi izan dizkiegu garai bertsuko edo geografia hurbileko lekukotasunak: Betolaza, Beriain, Etxeberri Ziburukoa, Leizarraga, Axular, Bonaparte, Hualde Mayo eta Mendigatxa.

Lan honetan ikusiko dena aurreratuz, gramatikalizazioari eta “Trasken legea”ri lotuta ahostun > ahoskabe bilakabideak aurkitu ditugu eta, honekin batera, ondare zaharreko CVC-DV egiturak beste edozein baino lehenagoko direla ondorioztatu dugu.

Ondorioz, hurbilketatxo honek erronkariko gutunaren bidez Mitxelenaren 1961ko proposamena lantzea du helburu. Horrenbestez, bilakabide diakronikoa ikerketaren ardatz izango dugu, erronkariaren eman ohi den irudi klasikoa fintzen saiatuaz.

ITURRIEN LABURDURAK

Analisirako erabili diren iturrien laburdurak¹.

Ax = Axularren *Gero* (KG²).

Bet = Betolazaren *Doctrina Christiana en Romance y Basquence* (ASJU II, 1955).

Ber = Berianen *Tratazen da nola enzun bear den meza* (KG).

EZ = Etxeberri Ziburukoaren *Elizara erabiltzeko liburua* (KG).

HM = Hualde Mayoren *Evangelio de San Mateo traducido al vascuence roncalés de Vidángoz* (RIEV, 1934).

Lç = Leizarragaren *Iesus Christ gure iaunaren testamentu berria* (Euskaltzaindia 1990).

Mdg = Mendigatxaren gutunak (Irigoyen 1957).

1 Analisirako Bonaparteren lexikoa (Pagola et al., 1997) ere erabili da.

2 Klasikoen Gordailua (KG), edizio faksimileak: <<https://klasikoak.armiarma.eus/>>.

*Ez kan, bai kan
katu beltza zan.*

Fidela Bernat, 1989.

AURKIBIDEA

0. SARRERA	5
1. ETXART-ROS GUTUNERIA	6
1.1. Solatik Erronkarira.....	7
1.2. Gabriel Etxart.....	7
1.3. Miguel Ros.....	8
1.4. Gutunetan aipatzen diren gatazkak.....	9
1.5. Testuinguruan kokatzen.....	10
2. GUTUNETAN OINARRITUTAKO ANALISIA	11
2.1. Analisi-sistema.....	11
2.2. (15). gutunaren berezitasunak.....	12
2.3. <i>n-/l-</i> ondoko herskarien neutralizazioa?.....	14
2.3.1. Erronkariara arkaismoaren gordetzailea: <i>pake?</i>	14
2.3.2. Rosen <i>n-/l-</i> ondoko herskariak biltzen.....	17
2.3.3. <i>n-/l-</i> ondoko herskariak maileguetan.....	18
2.3.4. <i>n-/l-</i> ondoko herskariak ondare zaharretan.....	23
2.3.5. <i>n-/l-</i> ondoko herskari ahoskabeak.....	25
3. MENDIGATXA ETA HUALDE MAYO	26
4. ONDORIOAK	29
5. BIBLIOGRAFIA	32
6. ERANSKINA	34
6.1. Miguel Rosen [ozen + hers.] taldeen zerrenda.....	34
6.2. Mendigatxaren [ozen + hers.] taldeen zerrenda.....	34
6.3. Hualde Mayoren [ozen + hers.] taldeen zerrenda.....	35

0. SARRERA

Euskararen corpusa “urria”³ dela esan izan da, baina erronkariaren egoera are tamalgarriagoa da. Gainera, dagoeneko hilik dagoen hizkera bat da Fidela Bernaten heriotzak honen amaiera ekarri zuelako. Hala ere, guzti honek ez du euskalkiaren inguruko ikerketa lana deuseztatu. Bonapartek 1869an euskalkiei buruz lehen mapa dialektologikoa egin zuenean, erronkaria Nafarroako Erronkariko haraneko zazpi herritan hitz egiten zen. Hauek hiru azpitaldetan bereizi zituen: Bidankoz, Garde eta Burgi; Urzainki eta Erronkari; eta azkena, Uztarroz eta Isaba. Beraz, lurralde honen ipar-ekialdean zerbaite desberdina sumatu zuen. Honen berezitasunaz Azkue ere jabetu zen eta printzearen ildotik, biltze lanetan ere ibili zen. Horrela, *Particularidades del dialecto roncalés* (1931) azterketa burutu zuen eta hizkera honetan zenbait ezaugarri bereizleren berri eman zuen: erakusletako leherkariak, bokal sinkopak, monoptongazioak... Honen antzera, Mitxelenak ere batzuk aipatzen zituen *Fonética Histórica Vascan* (1961-1977). Eta hau gutxi balitz, duela gutxi Gidor Bilbao eta MLVko kideei (a.g) esker, erronkarieraren lekukotasun berri zaharrena den Etxart-Ros gutuneria –Rosek bere euskararen egiten dituen 6 gutunak, alegia– aurkitu da eta hau, hain zuzen ere, lan honetako aztergaia da.

Eskutitzen lehen irakurketan, zenbait berezitasun ezin interesgarriago bildu ditugu. Are gehiago, erronkarieraz esan denari kontra egiteko hainbat adibiderek topatu gara, baina dena aztertzeke denbora ez dugunez izan eta ikerketaren interesaren aldetik guztia ere ez dagoenez maila berean, lehendabizi hautaketa bat egin behar izan dugu. Hori dela eta, gainerako berezitasunak hurrengo batean ikertzeko gelditu dira.

Hortaz, lan honetan *n-/l-* osteko herskariaren oposaketari eman diogu lehentasuna, ikusiko denez iritzi desberdinak izan baitira honen bilakabideaz. Adibidez, *borontate* edo *alte* bezalako etsenpluen aurrean, erronkarierak egoera zaharra gorde duela esan ohi da (cf. Mitxelena, 1961: 355), baina Mitxelenak *Fonética Histórica Vascan* (1961: 355) kontrakoa defendatu zuen argi bezain laburki, gero inoiz gehiago zehaztu edo zabaldu ez zuen arren. Horregatik, Etxart eta Rosen eskutitzak izan ditugu ardatz fenomeno hori sakonkiago ikusteko asmoz. Dena den, hizkuntzari erreparatu aurretik hartzaileen testuinguruan jarri beharra sentitu dugu. Horren ondorioz, lehenik eta behin corpusa

3 Ulibarrik xehetasun gehiago ematen ditu: “As for the quality of the texts, it is important to note that the corpus in Basque from the 16th century onwards is –in comparison with neighboring languages– not only late to appear and reduced in size, but also homogeneous in its content and dialectologically asymmetric.” (Ulibarri, 2013: 91).

deskribatzea erabaki dugu (ik. 1.). Hau egitean, gutun baten bi zirriborrorekin topatu gara eta berezitasun honen arrazoiaz jabetzeko, hauek konparatu eta ikertu ditugu (ik. 2.2.). Behin aurrekoa argituta, aurretik aipatutako leherkarien ustezko neutralizazioari heldu diogu (ik. 2.3.).

Ondorioz, hurbilketatxo honek Erronkariko gutunak baliatuz Mitxelenak 1961ean proposatzen duena egiaztatzea du helburu, baina baita inplikazio argiak izan ditzake Lakarra 2014ko artikuluak ahoskabetzearen dataren arabera EBZren banaketa proposatzen delako.

1. ETXART-ROS GUTUNERIA⁴

Gabriel Etxart eta Miguel Rosen arteko gutunak oso interesgarri dira hauen gaineko hizkuntza analisi bat egiteko. Gainera, XVII. mendeko –beraz, Euskara Zaharreko– zubereraren eta erronkarieraren lekukotasunak direnez, are baliotsuagoak bihurtzen dira eta ideia hau ezin ukatuzkoa da. Hala ere, hizkerari erreparatu baino lehen, bi idazle hauek testuinguruan kokatzea ezinbesteko da. Esate baterako, *Euskararen Historia II* ikasgaiaren ikusi bezala, euskararen egoera soziala garai batetik bestera aldakorra izan da –adibidez, Euskara Arkaikotik Lehen Euskara Modernora– eta Mounole eta Gómezek (2018) erakutsi bezala, ezegonkortasun honek eragina izan du hizkuntzaren zenbait alderditan. Horregatik, gutunak nork eta nondik idatzi diren jakitea garrantzitsua da, ondoren testuinguru historikoan ikusiko dena aurreratuz, garai hartako gatazka jakin baten ondorioz bidaltzen direlako hauek. Gainera, Gidor Bilbaok erakutsi zidan moduan, egileen hizkerak ziurtatzeko hauen biografiak arakatzea ere beharrezko da. Horrela, zubererarekin edo erronkarierarekin izandako loturak ziurtatzen edo zehazten dira.

Hori dela eta, hasteko lan honetako corpora deskribatuko da, hau da, Etxart-Ros gutuneria. Ondoren, Etxart eta Rosen bizitzak azalduko dira eta, honen ostean, eskutitzetan eztabaidatzen diren gatazkak. Azken atal honetan azaltzen diren gaiak nahiz eta historikoki garrantzitsuak izan, hauek ez dira berez azalpen honen helburu, baizik eta horren inguruko lekukotasunetan lexiko eta hizkuntza molde konkretu batekin topo

4 Gidor Bilbaorekin hitz egiteko aukera izan nuen. Hitzorduan, berak bildutako materiala azaldu eta utzi zidan. Horregatik, Gidorrentzat da nire eskerra. Beraz, atal hau idatzi ahal izateko, Bilbao. G. (a.g): “Etxart-Ros gutuneria”, *Monumenta Linguae Vasconum III. Jardunaldiak*, UPV/EHU, Gasteiz: 2016ko abenduaren 20an, lana ezinbestekoa izan da.

egingo dugula konturatzea.

1.1. Solatik Erronkarira

Gabriel Etxartek Solatik 1616ko maiatzaren 26an idatzi zion lehenengoz Miguel Rosi, eta hauen arteko azken gutuna, Etxartek bidalia da 1617ko urtarrilaren 14an. Guztira 17 gutun dira, batzuk euskaraz soilik idatziak, beste batzuk gaztelaniaz bakarrik, baina gehienak euskaraz eta gaztelaniaz jasoak. Hots, Etxarten gutunetan zuberera lekukotzen da –guztira, 8 gutun– eta Rosenak ziur aski Erronkariko euskaraz⁵ daude –guztira 6–; eta Etxartek bidalitakoen artean, bada erregearen *botherea* euskaraturik ere.

Bildutako testuak Erronkarin jasotak dira eta Miguel Rosek idatzitako eskutitzak Zuberoara bidali zirenez, gorde diren testuak honen behin betiko gutunen kopia edo zirriborroak dira. Gainera, Rosen gutun baten euskarazko bi bertsio lortu dira, elkarren osagarri, baina euren artean desberdintasunak antzeman daitezkeenez, hauen gaineko azterketa egitea erabaki dugu. Honen inguruan 2.2. puntuan mintzatuko gara.

Bukatzeko, hasieran esan da testu gehienak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi zirela, zehazki, Etxarten 6 gutun daude gaztelaniara itzulita eta baita Rosen beste 5 ere. Beharbada, Rosek hauek itzuli zituen Espainiako koroarekin erlazionaturiko organoren bati helarazteko helburuarekin, baliteke eskutitzetan aipatzen den Nafarroko *visoreyari*.

1.2. Gabriel Etxart

Gabriel Etxart Mauleko Oihenartenarekin lotuta zegoen familia garrantzitsu batetik zetorren. Zuberoan, zenbait karguren jabe izan zen, ikasketak baitzituen eta zuzenbidean lizentziaduna ere bazen. 1595ean bere lehengusina Jeanne Etxart alargunarekin ezkondu zen, Oihenarten amarekin, alegia (orduan, Oihenartek hiru urte baino gutxiago zituen). Ezkontzean, emaztearen lehen senarraren kargua lortu zuen, hau da, Zuberoan erregearen prokuradore bilakatzen da⁶. Honez gain, 1604ko urtarrilaren 1etik *Conseiller et Maistre des Requetes de sa Maiesté en Navarre* karguaren ardura hartu zuen. Eta prokuradore izateagatik, 1602tik auzi zibil eta kriminaletako epaile gisa ere jardun zuen, nahiz Estatu Kontseiluak eskumen hori kendu zion 1614ko irailaren 30ean.

5 “Erronkariera” zer den eztabaidagarria izan daiteke. Horregatik, gu 0. atalean ikusten denez, Bonaparteren (1896) sailkapenean oinarritu gara.

6 Gidor Bilbao eta bere lankideek uste dute gutunetan *fiscal de Francia*, *fiscal de Sola* edo *fiscal de Mauleón* aipatzen denean, kargu honi erreferentzia egiten zaiola.

Biografiari bihurtuaz, Gabriel alargun gelditu zenean, 1610 inguruan Arnaudine Oihenartekin –Jean Iriatziti Bordeleko Parlamentuko Gorteko abokatuaren alargunarekin– ezkondu zen. Emakumea Oihenarten aitaren arreba zen. Gidor Bilbaok (a.g) utzitako bere lanaren laburpenaren arabera, lehenengo emaztearekin hiru seme-alaba izan zituen (Charles, Jean eta Claire-Jeanne) eta bigarren emazte honekin bakarra (Donioan). Hala ere, ezkontzaz kanpoko beste seme bat ere izan omen zuen (Sans).

1.3. Miguel Ros

1544ko uztailaren 25ean Erronkarin jaio zen eta 1624ko urriaren 10ean hil, bere heriotze-agirian zehazten denez. Bere gurasoak, Blas Ros eta Katalina Miguel, 1543an ezkondu ziren. Nahiz eta ezkontza-kontratua Izabako notario batek baliozkotu, Rosen gurasoak Erronkarin bizi izan ziren. Informazio hau baliagarri suerta dakiguke Rosen hizkuntza egiaztatzeko eta, gainera, badakigu bere familia 3 belaunaldiz behintzat Erronkarin egon zela Ros alkate izateko.

1545ean Blas Ros hil zen. Honen aurrean, Katalina Miguel eta bere semea amaren nebaren etxera joan ziren bizitzera, orain ere Erronkarin bertan. Osaba horrek gure protagonistaren bizitzan paper garrantzitsua bete zuen: Domingo Miguel ikasketak Parisen egindakoa zen eta Erronkariko abade eta maisua zen. Bere arrebari lagundu zion Rosen ikasketa apalekin, eta jakin da arreba eta ilobarekin ere gogor xamarra zela eta hauek beldurra ziotela.

Miguel Ros heltzean, Joana Lópezekin ezkondu zen 1570 inguruan. Hiru seme-alaba izan zituen: Luis –notario izana– María eta Inesa. Halaber, ezkondu aurretik Magdalena Sanz ezkongabearekin ere seme bat izan zuen. Rosen izaera ez da goraipatzeko modukoa: adibidez, auzi bat baino gehiagotan salatu zuten bere emaztea egurtzeagatik. Gainera, bestelako salaketak ere izan zituen: mutiko bat kolpeka hiltzea, karguak bere mesedetan baliatzea, auzietako lekukoak erostea... Honen ondorioz, behin baino gehiagotan Iruñeko kartzelan izan zen preso.

Nolanahi ere den, hainbat kargu garrantzitsuren jabe izan zen: errege-eskribaua –1569tik aurrera– notarioa, Erronkariko alkate eta kapitain eta, baita Erronkariko bortuetako komisario eta guarda nagusi ere. Honekin batera, hainbat dokumentutan Erronkariko Batzar Nagusien juntakide, diputatu eta ordezkari gisa agertzen da. Baliteke Errege Bardeetako Juntako alkate gisa agertzen dena ere Ros bera izatea. Hortaz,

Etxarten eta Rosen karguak eta aipatzen diren arazoen larritasuna ikusita, ez da harritzekoa elkarri gutunak bidali izana.

1.4. Gutunetan aipatzen diren gatazkak

Muga, igarobide, bidesari, abere- eta diru-lapurreta eta abarren inguruko desadostasunak konpontzeko, Etxartek Zuberoako eta Erronkariko ordezkariak mugako bortuetan bilkura egitea proposatzen dio Rosi. Proposamen hau bi herri hauen arteko harremanen eta salerosteen hainbat urtetako etena hobetzeko helburuarekin egiten da, baina horretarako, Etxartek baldintza hau jartzen du: berak garai hartan Frantziako errege zenak sinaturiko dokumentua (*botherea*) aurkezten duen moduan, erronkariarrek ere aurkez dezatela Espainiako erregearen dokumentua: “Haren causaz, necessarioquy baque hun baten eçarteco, behar ducie ciec ere obtenitu eta uken cien erregue iaunaganic bothere eta comissione amplia...”

Erronkariarrek, ordea, ez diote erregeari Etxartek aipatutako dokumentua eskatu nahi. Are gehiago, zuberotarrei galdetzen diete erronkariaren aurka dauden sententziak baliogabetzeko eskumena emango dien ahalordea eska diezaiotela hari: “...çuen erregue jaunaganic podere espeçial, çuen gobernadore jaunarentaco, nola emanic vaitago sentencia, eta pregonaturich sentencia gure contra aren revocazeco, aboliçeco eta anullaçeco.”

Aurreko eztabaidaz gain, Rosek gutun berean azaltzen du bortuetan erronkariar bati abereak lapurtu dizkiotela eta, honen aurrean, lapurreta honen arduraduna zein izan den argitzeko Etxarti esaten dio: “Otoy eguiten diçut içuleraci diçaçun espendioequi eta gaztiga diçaçun.”

Laburbilduz, aurreko mendeetan beren aitzindariak bezala, Etxart eta Ros ez ziren ados jartzen eta arazoak ez ziren epe laburrean amaitu, Florencio Idoatek (1977: 144) oraindik biltzen baititu 1800 aldeko antzeko liskarrak zuberotar eta erronkariarren artean: “que como son frontaleros han muy grandes afrentos e han uista con los de Saluatierra de Aragon, con los de la vall d’Ansó, de la vall d’Hecho, de la vall d’Aspa, de la vall de los Baratones, de la tierra de Sola, e de la vall de Sarasaz, que son sus frontaleros”. Antzeman daitekeenez, honako hau ez zen izan epe laburreko eztabaida. Gainera, Etxarten azken gutunetik aurrera honen inguruan ez denez gehiagorik jakin, ezin tirabira honi amaierarik jarri.

1.5. Testuinguruan kokatzen

Corpusaren gaineko azalpenarekin bukatzeko, gutunak idatzi ziren testuinguru historikoa zein den zehaztea falta da. Informazio hau hiru iturri desberdinetatik lortu du Gidor Bilbaok (a.g) Celine Mounoleren laguntzaz: Frantziako erregearen artxiboan, Espainiako erregearen artxiboan eta, azkenik, Erronkariko Batzar Nagusiaren Artxiboan.

Frantziatik jakin da eskutizetan eztabaidatzen den gatazkari buruz Etxartek zenbait txosten idatzi zituela eta baita Parisera bidali ere. Gainera, lehen gutuna 1616an bidali arren, egoera aurretik nahaspilatsua zela irakurri ahal izan da. Esate baterako, Etxartek Iruñean zela Idiakenez erregeordearekin honi buruz hitz egin zuen eta, honi esker, 1612, 1613 eta 1614ko lapurreten, lur-usurpazioen, hilketen eta gainerako gertaeren berri izan da. Era berean, gai bera tratatu zuen zuberotarrak Frantziak Madrilen zuen enbaxadoreari idaztean. Eta liskar honen amaierarik noiz izan zen zehaztu ezin bada ere, historialariek jakin dute 1620an berdin jarraitzen zuela.

Bestalde, Espainian gertaera honi buruz Simancasko Artxibo Nagusitik informazio gehiago lortu du Gidor Bilbaok. Alde batetik, Frantziak Madrilen zuen enbaxadorearen txostenak daude eta, bestetik, lan honekin zuzenean erlazionatzen den testua Etxartek Idiakenez Nafarroako erregeordeari euskaraz itzulitako *botherea* da (ik. 1.1.): “Tengo embiado antes de agora copia en lengua bulgar a los dichos roncalesses”.

Amaitzeko, ondoko xehetasunak Rosen bizilekuan lortu dira. Hemen 1597ko dokumentu batean honako erreferentzia hau eskuratu da:

Proceso del fiscal de su Magestad de una parte y Juan de Constantin y Juan de Xobac Lujan, naturales de Montori, en tierra de Sola (Francia), sobre que siendo franceses, enemigos de la Santa Fé Católica, que viven en la secta reprobada de luteranos hugonautes, entraren de acuerdo con otros franceses armados en los límites de Navarra y Valle de Roncal, haciendo mucho daño a los católicos y naturales, robándoles y asaltando ganados, acometiendo a cinco hombres de dicho valle de Roncal y a otros hiriéndolos. (Bilbao, a.g).

Lehenengo atal honetan gutunen hartzaileen bizitzetako zertzelada zenbait ezagutu dugu. Gainera, biografiekin euren hizkerak ere ziurtatu dira, Etxart Zuberoan –

honekin zalantza gehiago daude– eta Ros Erronkarin jaio, bizi eta hango kontuez eta pertsonen arduratzen baitziren. Hala ere, lan honetan Rosen erronkaria aztertuko den moduan, Etxarten zuberera ere noizbait ikertu beharko litzateke eta baliteke orduan zeresan gehiago ematea bere “jatortasunak”. Era berean, corpus honekin lotzen diren beste dokumentuen erreferentziak zehaztu dira. Behin aurkezpenak eginda, jarraian analisiari helduko diogu.

2. GUTUNETAN OINARRITUTAKO ANALISIA


2.1. Analisi-sistema

Orain arte azaletik gutunen inguruan hitz egin da, hau da, corpora deskribatuz baina hizkuntzari erreparatu gabe. Hala ere, ondoren hori ikusteko aukera izango da. Horregatik, eskutizetan lekukotu diren hizkeraz baliatuta, analisiari hasiera emango zaio, baina sarreran zehaztu moduan, nahiz gutun hauen bidez zuberera eta erronkaria lekukotu, ikerketa honetan *n-/l-* ondoko herskarien oposaketa aztertzea da helburu Rosen gutunei lehentasuna emanaz. Dena den, Etxarten testuak ez dira erabat baztertuko sudurkari eta albokariaren ostean zubereran ere leherkariaren bilakabidea antzeman delako eta honen eskutitzak konparaketarako baliagarri izango direlako.

Erronkariaren ikerketaren egoerari dagokionez, zenbait azterketa egin dira eta batzuk sarreran jada aipatu dira: Bonaparteren itzulpen lanak (Pagola et al., 1997), Azkuek argitaratutako *Particularidades sobre el dialecto roncalés* (1931), Mitxelena *Fónetica Histórica Vascan* (1961-1977) eta bere beste bi artikuluetan (1954, Mitxelena et al. 1953) azaltzen dituen ezaugarriak, Ricardo Gómezen ikerketa (1991), besteak beste. Esan gabe doa hauek ezinbestekoak izan direla lan hau burutzeko, baina honetaz gain, azterketa hauei esker ere hizkeraren bilakabide diakronikoaz gehiago jakin ahal izan da. Beraz, aurrekoetan biltzen diren ezaugarriak Rosen gutunetan aurkitu nahi izan ditugu, baina hori baino lehen, erabilitako analisi-sistema zein izan den argitu nahi genuke.

Lana ahalik eta erabilgarriena egitea denez gure asmoa, gutunak izendatzeko orduan jarraitu den sistema beheko irudian zehazten da. Hots, gutun bakoitzari zenbaki bat esleitu zaio: Etxartek bidalitako lehen gutunak (1) zenbakia du eta guztira 18 testu direnez, azken gutunari (18) zenbakia jarri zaio. Bestalde, egile bakoitzak idatzitako kartak koloreen bidez ere desberdindu dira: Etxartenak laranja kolorekoak dira eta

Rosenak, berriz, urdinak. Izan ere, tartean bada morez markatu den beste bat. Hau izango da Etxartek “en lingua bulgar” (ik. 1.4.) itzultzen duen *botherea* Erronkarira bidalia. Azken ezaugarria gorritz nabarmendu diren zenbakiak dira, Rosek euskaraz idazten dituen idazkienak: (7), (9), (11), (13), (15), eta (17). 6 gutun hauen bidez, aurretik aipatutako erronkariaren berezitasunen gaineko azkerketa egin da, baina sarreran aitortu bezala, denbora faltaz hautatu behar izan da. Horren ondorioz, *n- / l-* ondoren *ongi/onki* bezalako herskariaren ahostun/ahoskabe oposaketa antzeman denez, honetan gehiago sakontzea erabaki da, euskalki banaketarako ere duen garrantziagatik (cf. Mitxelena, 1961: 355; Lakarra, 2014: 205). Hala ere, hori baino lehen, (15).eskutitzaren bi zirriborro aurkitu eta hauek konparatu eta zein desberdintasun den ikusi nahi izan da. Hortaz, leherkariaren txandakatzearekin hasi aurretik hau zehaztuko da; beharbada zehaztaperen filologiko hauek beharrezko izan daitezke azterketa diakronikorako (ik. 4.).



Irudia 1. Etxart-Ros gutuneria

2.2. (15). gutunaren berezitasunak

Esan bezala, Rosek Etxarteri zuzendutako gutunen artean bada euskarazko testu baten bi zirriborro, hark egindako azkenaurreko gutuna, alegia. Honen inguruan ez genuke ezer esango berezitasunak aurkitu ez bagenu, baina zirriborroak konparatzean orain arte ez bezalako hitz formak identifikatu direnez, eta hauei arrazoi logiko bat emateko asmoz (15). gutunaren inguruko azterketatxo bat egitea erabaki da. Lehen

testua (aurrerantzean “A”) bigarren zirriborrotik (aurrerantzean “B”) zertan desberdintzen den erakutsiko da.

Hasteko, nahiz eta grafian ezberdintasunak topatu, hauei ez zaie garrantzi handirik eman hizkuntzaren izaerari ez baitiote eragiten. Gehienez ere, ezpainbikari herskaria edo afrikatu lepokaria adierazteko grafema desberdinak erabili dira: *reçebitu* (A) - *reçevitu* (B); *anizetan* (A) - *anicetan* (B). Baina adibide hauek biltzen dituen hitz-zerrenda egitea ez da gure asmoa. Horregatik, orain arte *guthun* eta *othoy* bezalako hitz forma berriei emango zaie lehentasuna.

Rosen gutunetan hamabost aldiz *gutun* hitza erabiltzen da, guztietan, /h/rik gabe. Antzera *otoy* hitzarekin: lau bider idazten da eta behin ere ez hasperenarekin normala den bezala Erronkarin, Nafarroan hasperena antzina desagertuta baita (cf. Mitxelena, 1961). Kontrara, Etxartek ez du /h/rik gabe idazten. Gauzak horrela, Ros Etxarteren idazkera imitatzen ahalegindu zela pentsa genezake eta, ondorioz, ordura arte erabili gabeko hitz formak idazten. Hain datu gutxirekin hipotesi hau ahul geldituko litzateke, baina hasperenarekin idatzitako beste hitz bat identifikatu da: *çuhur*. Kasualitatea dirudien arren, Rosek jasotako azken gutunean Etxartek *çuhurrec* darabil. Beraz, badirudi planteatutako hipotesiaren aldeko ebidentzia erantsia dela honako hau.

Adibide hauen pare, Rosen *gore* aipatu nahi genuke. Hark hogeita hamairu aldiz pluralezko izenordain hau beste gutunetan -u- bokalarekin idazten du. Etxartek, ordea, *goure*. Aurretik azaldu diren adibideekin konparatuz, hau ez dirudi hain begibistakoa denik. Izan ere, bokal aldaketa hau bakarrik gutun honetan gertatzen dela azpimarratu nahi genuke. Eta, honekin batera, Rosen gainerako gutunetan topatzen ez den beste ezaugarri bat <x> grafema da, baina A testuan *quexa* biltzen da. Honen aurrean, nahiz Etxarten adibideak gutxi izan, grafema honen bidez beste hauek ematen dira: *exprez*, *expressuqui* (4); *expedient*, *execucionetan* (5); *oraicoix* (8). Hortaz, bi hauetan ere Etxarten ereduaren eragina antzeman daiteke.

Ikusitakoaren ondorioz, bi zirriborro lekukotzeagatik badirudi horietako bat (A) Etxarteren idazteko era imitatu nahian egin zela. Gainera, berezitasun honek ondoren aztertuko den *n-/l-* ondoko leherkarien analisisian du islarik, *gende* (15) bezalako egiturak bakarrik testu honetan aurkitu baitira (ik. 4.). Edozein modutan, berezitasun honek benetako asmoa zein izan zen jakiteko gogoekin uzten gaitu.

2.3. *n-/l-* ondoko herskariaren neutralizazioa?

2.3.1. Erronkariara arkaismoaren gordetzailea: *pake*?

Erronkariara –zubererarekin batera– gainerako dialektoetatik desberdintzen duen ezaugarrietako bat *n-/l-* ondoko herskariaren fenomeno da (cf. Mitxelena, 1961: 355). Hots, bertan sudurkariaren eta albokariaren ondoren herskariaren neutralizazioa nagusi dela antzeman da, kontsonante hauen ostean herskari ahoskabeak hautatzen direlako, hain zuzen. Izan ere, hizkeretan hain ohikoa den aldaketa hau, erronkarierak beste egoera bat erakusten du: “E *altare*, Z *althá(r)e* : orok. *aldare* (B *altara*), Err-Z *boront(h)ate* : orok. *borondate*, Err-Z *alt(h)e* : orok. *alde*, etab.” (Lakarra, 2018: 218). Berezitasun honi eman zaion azalpena Zuberoak eta Erronkarik egoera zaharra gorde dutela izan da (Mitxelena, 1961). Baina Lakarrak (2018) dioten moduan, gainerako euskalkietan ere *hilko*, *Jainko* eta *ahalko* bezalako adibideak badira.

Hala ere, banaketa geografikoaz gain, *n-/l-* ondoko ahostuntzearen auzia kronologikoki ere mugatzeko ahalegina egin da, esate baterako, Guitterrek (1989) euskal hotsen datazio-saio laburra egin eta bertan, bi ahostuntzeen (*mp > mb* eta *nt > nd*) bilakabidea azaltzen du (bata IV. mendearen inguruan eta bestea IV. mendearen erdialdean):

200	300	400	1000	1100	1200
<i>p- > b-</i>	<i>n > ø</i>	<i>nt > nd</i>		<i>l > r</i>	<i>ll > i</i>
<i>t- > d-</i>	<i>mp > mb</i>	<i>nd > n</i>	<i>nn > n</i>		
<i>k- > g-</i>	<i>mb > m.</i>				

Irudia 2. Guitterren 1989ko euskal hotsen datazio-saioa. Iturria: Lakarra, J. A. (2013).

Zoritxarrez, Guitterren saioan *lp > lb*, *lt > ld'* eta *nk > ng* aldaketak faltan dira. Dena den, ahostuntze hauek ez dira ekialdean topatuko, berrikuntza hau pairatu duten hizkerak Euskal Herriko beste guztiak baitira.

Halaber, orain arte arkaismotzat jo izan da *n-/l-* ondoren herskariaren ahoskabe/ahostun oposaketa ez neutraltzeari, baina Mitxelenak kontrako azalpena ematen dio honi:

Hay dos maneras de interpretar estos hechos. Lo más natural parece pensar que en vascuence se ha llegado a neutralizar la oposición sorda / sonora detrás de

7 Gauzak nahasiago dira *alte/alderekin*. Honi 3. atalean helduko diogu.

nasal y /l/ sonorizando en esa posición las oclusivas sordas con posterioridad a la introducción de los primeros préstamos latinos: ronc. y sul. serían por tanto dialectos arcaizantes que han conservado mejor el antiguo estado de cosas. Pero acaso se pueda suponer también que se trataba de un tipo de lengua en que la oposición quedaba suspendida en esos contextos, en los cuales las oclusivas se pronunciaban uniformemente sonoras (o lenes). En este supuesto, las nuevas formaciones y los préstamos que presentaban grupos formados por nasal o /l/ + oclusiva se seguirían acomodando por bastante tiempo al tipo normal, siendo el roncalés y el suletino los dialectos que primero abandonaron esta práctica. (Mitzelena, 1961: 355).

Hortaz, Mitxelenak (1961) dioena kontuan hartuz, erronkaria edo zubereraz landako euskalkietan *n-/l-* ondoko herskari ahostuna mantendu da eta aipatutako ekialdeko hizkeretan, berriz, herskari ahoskabea sartu da (cf. Lakarra, 2014: 206). Honen ondorioz, hasieran azaldutako egoera berrinterpretatu behar da: Mitxelenaren proposamen berri honen arabera, gainerako euskalkietan gorde den egoera zaharraren –ahostuna gordetzearen– aurrean, zubereraz eta erronkarieraz ahostun > ahoskabe aldaketa gertatu da.

Interpretazio honen alde, Lakarra (2013) Mitxelenaren hipotesiari hiru argudio erantsen dizkio. Alde batetik, ezaugarriaren hedadura dialektalari begiratzen dio eta erronkarieraz ahostun/ahoskabe oposaketa “mendebalagorako euskararen eta ekialderagoko erromantze ahostundunaren tartean” (Lakarra, 2013: 14) kokatzen dela konturatzen da. Beraz, ustezko berrikuntza bera muturretan gertatzea “logika guztiaren aurka” (*Ibidem*, 14) doala azpimarratzen du. Hala ere, txandakatzea ahostun/ahoskabe ulertu beharrean, Martineten eta Mitxelenaren bortitz/ahul proposamena gogoratuaz eta, ildo honetatik, txistukarien hitz hasierako neutralizazioa azaltzen du: “...kontuan badugu kokagune berean txistukariekin gertatua, orduan, neutralizazio zaharra ahularen alde zela (txistukarietan ergo ahostuna hauetan) eta aldaketa gero bortitzaren alde bilakatu zela eremu batzuetan (afrikatua haietan, ahoskabea hauetan)” (*Ibidem*, 15). Hau da, txistukarietan neutralizazioa ahularen –egun, frikariaren– alde gertatu bazen, herskarietan gauza bera gertatu ahal zela pentsatzera eramaten gaitu adibide honek. Gainera, frikariaren aldeko neutralizazioa Euskal Herri osoan lekukotutako bilakabide bat da, Leizarragaren bereizkuntza grafiko sistematikoaz landara, *Refranes y Sentencias*, Landucciren hiztegian, Beriainen edo Lazarragaren testuetan aurkitu baita, besteak beste. Hortaz, Mitxelenaren (1957) berreraiketaren arabera bortitz/ahul oposaketa bera

denez /h/az kanpoko sail guztientzat, gainerako hotsekin hizkuntza berdin portatzea espero da. Hots, hizkera guztietan herskarietan ahostunaren aldeko neutralizazioa gertatzea.

Era berean, aipatutako azken arrazoi honek “Trasken legea”-rekin du lotura – Lakarraren (2013) hirugarren argudioa-. Baina hau egoki aztertzeko, gramatikalizazio teoriaren barnean kokatzea ezinbestekoa da, Traskek egin ez bezala. Horretarako, erroaren eta morfemaren arteko loturatik abiatu behar da. Horrenbestez, item lexikoak gramatikalizatzeko jarraitzen dituzten bideak ikusten ditugu eta morfema lexikoek gramatikalizatzean gramatika-funtzioak eskuratzen dituzten heinean, lehen zeukaten esanahi lexikoa galtzen dute. Honekin batera, jatorrizko egitura fonetiko ere urritzen edo aldatzen zaie. Beraz, Lakarraren (1995, 2013) morfema lexikoen forma kanonikoan oinarrituz gero, CVC erro monosilabiko egitura batek bi bilakabide izango ditu: batetik, CVC → CV gramatikalizazio primarioa deritzona eta, bestetik, azken honetatik sortzen den CV → C / V gramatikalizazio sekundarioa (cf. Lakarra, 2016).

Gauzak horrela, CV egitura berri honen hitz hasieran ahoskabe/ahostun alternantzia bada, CVrik zaharrena ahostunarekin eraikitako morfema dela dio Traskek (1995), DV, hain zuzen. Eta hortik sortzen dira gainerako alomorfoak: TV eta V. Horrela, *-gi/-ki* eta *-de/-te* alternantziak azaltzen ditu:

...Finite forms are not part of my brief here, but I cannot resist pointing out that the existence of the competing forms *-ki* and *-i* suggests a common origin for both in an earlier **-gi*. The splitting of an original **-gi / -ki* and *-i* would strongly parallel the split of the plurality marker **-de* into *-te* (as in *dute*) and *-e* (as in Biscayan *dabe* < **daue*), with *-de* surviving in a few forms like *daude*. (Trask, 1995: 231).

Bestalde, Lakarraren 2013ko artikuluan DV > TVren kasu gehiago ematen dira, Trasken adibide Lakarrarekin gainerakoak ere bat datozela. Gainera, guztiak CVC dira: **edin*, **dar*, **den*, **don*... Hortaz, “Trasken legea”ren arabera, sudurkari eta albokariaren osteko CVren hotsik zaharrena herskari ahostuna da. Horren ondorioz, *-nd-*, *-ld-*, *-nb-*, *-lb-*, *-ng-* eta *-lg-* kontsonante bilkureetatik *-nt-*, *-lt-*, *-np-*, *-lp-*, *-nk-* eta *-lk-* berrikuntzak sortzen dira. Gainera, ideia honek indarra hartzen du “/l, n/ ondoren ez dela ***hanti* edo ***alti*-rik ekialdean, baizik eta *handi* eta *aldi* gainerakoetan bezala” (Lakarra, 2013: 297) ikustean eta *erdi*, *ardi*, *hordi*... *r-* ondoren, hots, beti eta dialekto guztietan ahostun/ahoskabe berezi den lekuetan: “A diferencia de lo que sucede detrás

de *n* y *l*, las dos series de oclusivas se mantienen bien distintas tras *r*: com. *urde* 'cerdo' /*urt(h)e* 'año', cf. también *ardí* 'oveja' (y vize. 'pulga') y *arte* 'espacio intermedio: 'encina'." (Mitzelena, 1961: 355). Eta, batez ere, DV > TV [S_] (txistukari ondoren) testuinguruan ere fenomeno morfofonologikoa da, ez soilik fonetikoa.

Ondorioz, orain arte ikusitakoa zuzena bada, erronkariara eta zubereraren leherkariaren alternantzia ez litzateke arkaismo bat izango. Horregatik, Mitxelenak (1961) proposatutako ideia astiroago ikusteko helburuarekin Ros erronkariarraren *n-/l-* ondoko herskariaren adibide guztiak bildu dira (Etxartenak ere jaso dira ondoren egingo diren konparaketetarako). Batutako etsenplu guztiak eranskineko 6.1. atalean zerrendatu dira eta, 2.3.2. zatian bildutako hauek bi multzotan bereizita azaldu dira: batetik, maileguak eta, bestetik, ondare zaharrekoak bilakabideak arrazoi eta kronologia ezberdinak izan litzakeela batean eta bestean sumatzen dugulako. Amaieran, bi talde hauetan antzeman diren joerak zehaztuko dira (ik. 4.).

2.3.2. Rosen *n-/l-* ondoko herskariak biltzen

Aurreko paragrafoan esan den moduan, topatutako adibideak bi multzotan banatu dira: batzuk Rosek erabiltzen dituen maileguetakoak eta besteak ondare zaharreko hitzak. Zintzoak bagara etsenplu guztiak maila berean ez daudela esan beharko genuke, eta gure intereseko adibideak ondare zaharreko herskariak direla bereziki. Gainera, maileguak normalean lehendik nagusi diren ohituretara moldatzen dira. Horregatik, ondare zaharrekoak batez ere azaldu behar dira.

Beraz, analisi honetan, ondare zaharreko hitzei lehentasuna emango zaie, baina maileguak erabat baztertu gabe, hauetan ere ahostun/ahoskabe alternantzia gertatuko delako nahiz ez erabat aurrekoen arrazoi berberengatik. Izan ere, hauek beste arrazoi baten eraginez eta seguruenik oso kronologia desberdinarekin sortuko direla argituko da (ik. 2.3.3.). Jarraian, multzo bakoitzean aurkitutako berezitasunak zehazten hasiko gara, baina adibideen gaineko analisisian sakondu aurretik, pare bat gauza argitu nahi genituzke. Lakarraren 2013ko (ik. 2.3.1.) argudioak azaldu direnean, Martineten eta Mitxelenaren bortiz/ahul oposaketaren proposamena aipatu da. Martinetek (1950) euskaraz *bekatu* baina gaztelaniaz *pecado* zela ikustean, euskarazko hitz hasierako herskariaren bilakabidea oso ezberdina zelarik, hau sistemaren izaera desberdinari zor zaiola ondorioztatu eta hitz hasierako herskarietzako bortiz/ahul oposaketa zaharragoa

–eta artean ezezaguna– proposatu zuen. Ildo beretik, Mitxelena (1957) Martineten ideia hau gainerako inbentarioko azpi sailetara zabaldu zuen eta, horrela, ozenak eta txistukariak ere bortitz/ahul oposaketaren barnean azaldu ziren.

Gaur egun, fonologiak bere autonomia duela ezin da ukatu, baina hau ez dela erabatekoa eta morfologiarekin duen lotura eta inoiz zorrotza izan ere duela aipatzera ausartuko gara. Honen inguruan, Richard D. Janda honako hau dio:

...it is assumed that linguistic theory cannot ignore morphology, and so cannot shirk, but must instead always address, questions regarding the proper grammatical type or grammatical location that should be assigned to particular analyses for sound-based phenomena. Synchronically [eta diakronikoki, noski], it is clear that not all manipulations of sound must necessarily be a matter of phonology pure and simple. That is, there are some alternations in the shapes of certain lexical items which cannot be reduced to statements of rules or constraints that take into account nothing other than elements of sound structure. (Janda, 2003: 404).

Gurera ekarriz, Lakarrak (2018) **e-da-dus-i > *e-a-dus-i > *e-aus-i > jausi* aditz zaharraren bilakabidea proposatu duenean, galdutako –kasu honetan– hotsen ondorioz, fonologian aldaketak izan dira, bereziki *jausik* /j/ soinua garatu du eta begi bistakoa da hasierako egiturak kontsonante galerak ere pairatu dituela baina, era berean, eraldaketa honek morfologia berria sortzea ekarri du: silaba eta morfema antolaketa berria. Ondorioz, berehala ikusiko den *n-/l-* ondoko herskarien auzia ezin da fenomeno fonetiko edo morfologiko hutsa balitz bezala aztertu, dena ez baita zuri edo beltz esparru hauei dagokienez (ik. 3.).

2.3.3. *n-/l-* ondoko herskariak mailegutan

Orain, Rosen eskutitzetako maileguen RT (ozen + herskari) taldeei erreparatuko zaie. Hasteko, azaldu diren maileguen artean badira batzuk zeinetan [izena + atzizkia] elkarketak bereizten diren. Hauek zeintzuk diren zehaztu aurretik, mailegaketari dagokionez beste bi zertzelada gogoan izan behar ditugu. Ezer baino lehen, nahiz eta maileguen banaketa erakutsi, hauek –batez ere morfemak– gehienbat euskarak barneko analisirik gabe (“osorik”) hartuko zituen bertakotu gabe, alegia. Hala ere, zatitu egingo ditugu geure azterketa errazteko asmoz. Izan ere, badira ahostun/ahoskabe txandakatzeak maileguen atzizkietan bakarrik gertatzen direnak eta, beraz, zuzenean

atzizkiei begiratuko diegu.

Gauzak horrela, leherkari ahoskabea erakusten du *-mentu* atzizki mailegatuak. Hau latinezko *-mentu(m)*etik dator eta, aldameneko erromantzean ere (gaztelaniaz), *-mientoren* kontsonantea ahoskabea da. Halaber, Rosen gutunetan bi hortzetakoen arrastoak daude: *juntamentu* (15) eta *gubernamendu* (15)⁸. Baina *-nd-* > *-nt-* erronkariaren berrikuntzat jo aurretik, garai bertsuko idazleen testuekin konparaketak egingo ditugu *-mentu/-mendu* txandakatzearen hedadura zehatzago ikusteko. Hortaz, geografiaren eta kronologiaren aldetik Rosengandik hurbilen gelditzen diren adibideak Etxarten gutunetakoak direlarik, honek *-mendu* amaiera darabil: *iugamendu* (1); *arrestamendu*, *luçamendu* (4); *governamendian* (14)⁹. Protagonista hauengandik ez oso urrun, Leizarraga eta Etxeberri Ziburukoa ditugu. Ikusten dugunez eta espero bezala, iparraldeko bi idazle hauek ere ahostunarekin *gubernamendu*¹⁰ dute. Gauzak sakonago miatzeko asmoz, Etxeberri Ziburukoaren adibide gehiago jaso dira eta, bestalde, Beriain Hegoaldeko nafarraren hitzekin alderatu ditugu¹¹. Hori dela eta, ez gara Rosen jaioterri eta bizilekutik asko urrundu, ezagun denez, Beriainek Iruñeko hizkera erabiltzen baitu:

...y aunque en diferentes partes del ay en algunas cosas, diuersos modos de hablar, yo escriuo el que se habla en Pamplona, Cabeça deste Reyno y Obispado de Nauarra, que es el que se habla en la mayor parte del, donde se habla bascuence y el que mejor se entiende en todas las partes...¹²

Etxeberri Ziburukoak latinezko *-mentu(m)* atzizkiari dagozkion hitz guztiak *-nd-* rekin dakartza. Hauetako asko Berianen testuan ere aurkitzen dira baina autore honek, aldiz, ahoskabearekin ditu: *adimendu* (EZ, 5¹³.orr) vs. *adimentu* (Ber, 43.orr); *pensamenduetaric* (EZ, 73.orr) vs. *pensamentues* (Ber, 69.orr). Hau ikusita, iparraldean

8 Hala ere, 2.2. atalean ikusi bezala, Rosek zenbait hitz moldatzen ditu Etxarten hizkerara hurbiltzeko. Kasu honetan, *-mendu* bakarrik pasarte honetan darabil. Beharbada intentzio berarekin aldaketa hau egin izana.

9 Lekukotasun honetako Etxarten kasu guztiek *-mendu* amaiera dute.

10 Ikus bedi OEH: *Zareten bada suiet gubernamendu humano guziaren, Iaunagatik*. "Tout ordre humain" Lç 1 Petr 2, 13 (IBk giza agintaritzan). / *Hek guztiak mukurruki dakizkitzu, Prelata, / zure gubernamenduan nola ageri baita*. EZ Man I 6.

11 Hemendik aurrera erabiliko diren testuak "Iturrien laburdurak" atalean zehaztutakoak dira.

12 "Iturrien laburdurak" atalean zehaztu den moduan, hau KGko edizio faksimileatik ateratakoa da, "Al Lector" sarreratik, hain zuzen.

13 Parentesien artean, adibidearen orrialdea zehazten da eta gutunak identifikatzeko sistemarekin ez nahasteko, zenbakiaren ostean "orr" idatzi da. Dena den, zein testuz ari garen ikusteko, "Iturrien laburdurak" atalera jo.

herskari ahostuna denbora gehiagoz mantendu dela pentsa daiteke. Erronkaritik urrunago gelditzen den Betolazaren dotrina ere arakatu dugu puntu hau argiago ezartzeko asmoz. Arabar idazle honek –Berianek bezala– *-mentu* atzizki soila du: *pensamentu* (*Bet*, 52.orr), *Mandamintu* (*Bet*, 56.orr), *juramenturic* (*Bet*, 56.orr). Azken lekukotasun lagin esanguratsu honi esker, aurretik ikusitako iparraldeko eta hegoaldeko idazleen arteko banaketa (Ros/Etxart-Leizarraga-Etxeberri Ziburukoa) are nabarmenago bilakatzen da Betolaza eta Beriain ere Rosi gehituaz. Lehendabiziko hurbilketa honen arabera, Mitxelena proposatzen duen ahoskabearen aldeko berrikuntza ez Erronkari eta Zuberokoetan eta bakarrik hor, baizik eta Rosez landara hegoaldeko gainerako testuetan ere gertatu dela erakuts daiteke. Horrek esan nahi ote du, beraz, erronkarieraren *n-*ondoko ahoskabetasuna ez dela hizkera honen ezaugarri bereizlea? Erantzuna bilatu nahian, euskalki honen gainerako lekukotasunak ere aztertuko ditugu.

Eginkizun honetarako, oso lagungarri izan da Ricardo Gómezen (1991) lana. Ikerlari honek XVIII. mendeko erronkarierazko *Doctrina Uscaz* aztertzean *n-*ren ondoko herskariaren adibideen artean, *pensamentu* eta *ordenamentu* hitzak aurkitu zituen. Kasu honetan, Rosen gutunen eta dotrina honen arteko distantzia ez du geografiak markatzen, baizik eta mende bateko jausi kronologikoak. Baina are beranduagokoak dira Mendigatxak Azkueri idatzitako gutunak –1902tik 1916ra arte– eta Hualde Mayoren itzulpena, zeinetan orobat aurkitzen den *-mentu*¹⁴. Orduan, esan daiteke garai honetarako ekialdeko euskalki honetan *-nd-* > *-nt-* berrikuntza gertatu dela? Hain corpus txikiarekin ezin dira hipotesi orokorrak atera. Gehienez ere, konparaketa honetan ikusi diren joerak deskriba daitezke, zehazki, XVIII. mendetik aurrera *-mentu* dela nagusitu dena.

Dena den, azken hurbilketa honek ez digu aurreko hegoaldeko *vs.* iparraldeko auzia konpontzen, espero ez diren Beriain eta Betolazaren dokumentuetan leherkari ahoskabea aurkitu delako eta dialekto horietan ez baita *-nd-* > *-nt-* edo gainerako ahoskabetzerik. Pentsatu izan da *-mentuk* atzizkiaren jatorrizko latinezko formatik hurbilago dirudienez, horixe dela zaharrena euskaraz, baina gainerako adibideei esker jakin genezake baieztapen hau ez dela zuzena. Izan ere, zalantzarik gabeko bestelako testuinguru batera jotzen badugu *bake* askoz zaharragoa da *pake* baino nahiz itxuraz bigarrena latinekotik hurbilago izan. Horregatik, kasu honetan hizkuntzan gertatzen

14 Hona hemen adibide batzuk. Dena den, 6.2. eta 6.3. ataletan etsenplu guztiak bildu dira: “Egun juetan nago sendimentu pikor bateki” (*Mdg*, 127.orr); “Hura pensamentu contan” (*HM*, 528.orr).

diren aldaketa partikularretatik haratago jo behar dugu. Beste era batean esanda, Beriainen eta Betolazaren testuinguruak xehetasun handiagoz ikertu beharra dago, XVII. mendean kokatzen diren idazle hauen garaian, bai iparraldean eta baita hegoaldean ere: “*Diglosia* hitzak ezin hobeki deskribatzen du euskararen egoera, beti gaztelaniaren, frantsesaren eta gaskoiaren beraren menpe, hizkuntza horietantxe idatzi baitziren Euskal Herriko foruak” (Mounole & Gómez, 2018: 473). Baina diferentzia nabarmenak ere baziren: hegoaldean gaztelera guztiz indartsu bihurtzen ari zen eta Beriainen testua horren adibide da. Esate baterako, idazle hau erdara zalea dela ez dago zalantzarik, hainbat hitz erromantzetik hartu dituela ikusi baita –are gehiago Lizarragak mende bat beranduago–. Beraz, testuari nolabaiteko maila eta dotorezia esleitzeko aipatutako erdaratik zuzenean hartutako mailegu asko erabiltzen ditu. Jarrera honen ondorioz, esan daiteke Berianentzako *-mendu* atzizkia zaharkituta dagoela eta gaztelaniazko forma jasoago aurkitzen duenez, hizkuntza honetatik hurbilen gelditzen den atzizkiaren forma erabiltzen duela. Iparraldean, aldiz, Leizarraga eta gainerakoengan, ezin topa daiteke horrelakorik *-nd-* eredu zaharrari heldu baitzaio. Autore hauek maila jasoko idazleak izan arren, ez da antzematen beren hizkeran erromantze garaikideen eragin markagarriarik fonologian hegoaldean aurkitu bezala.

Hortaz, iparraldekoek *-nd-* forma jatorra darabilte baina Beriainek, berriz, forma hau baztertu eta kultismo diglosikora jotzen du, hau da, gaztelaniaren ahoskabeetara. Orobat, gaztelaniaren eragina Rosen eskutizetan ere nabaritzen da, honek ere *-menturen* adibideak baititu. Hala eta guztiz, atzizki mailegatu baten inguruan hitz egiten ari garela ezin da ahaztu, ez latinetik baizik eta gaztelaniatik zuzenean hartutako atzizki batez¹⁵, ordea.

Ezagun denez, atzizki mailegatuak bertakotzeko ondare zaharreko oinarriekin behar dute konbinatzera heldu; alabaina ez da hori aurkitzen duguna, atzizki mailegatu soilik mailegatutako oinarriekin elkartzen baita. Hau da, *-mentu* euskarazko atzizki soilik bilakatuko litzateke ondare zaharreko oinarriekin lotzean, baina hori ez da gertatu ez XVII. mendean eta ezta beranduago ere. Hortaz, euskaraz Rosek dakartzan bezalako hitz mailegatuak barneko analisirik gabe (“osorik hartu”) eskuratu dira, inongo eratorpen historikorik gauzatu gabe hizkuntza hartzailean, nahiz erromantzean hitza zatikagarria izan lehen eta gero.

15 Berianek gaztelania eredugarri duenez, *-mentu* hizkuntza honetatik egokitu *-ie-* > *-e-* (cf. *Bet.* *-ie-* > *-i-*: *-mintu*) duela baieztatu daiteke.

Mitxelenaren azalpenera itzuliaz (cf. 2.3.1), barneko analisirik gabeko maileguetan azaleko berrikuntza bat dirudien *-d- > -t-* aldaketa dugu. Adibidez, Etxarten gutunetan askotan errepikatzen den *endelgatzen* (1) hitzaren aurrean, Rosen *entelegatuec* (15) dugu. Hitz forma hau latinezko *intelligeretik* datorrenez, euskal dialektoetan *-d-* baten bidez ematea espero da eta, gauzak horrela, *-t-* agertzea berrikuntza litzateke. Gainera, Mendigatxaren gutunen artean ere herskari ahoskabea aurkitzen da hor: *entelegatra* (*Mdg*, 132.orr). Beraz, badirudi *endelgatun* XVII. mendeko erronkarian herskari ahoskabea sartzen hasia zela, baina hau argiago ikusteko, kasu gehiago eta ohikoagoak hautatu ditugu dagoeneko aipatu diren garai bertuko idazleekin konparaketak egiteko. Horrela, ahostun/ahoskabe alternantziaren inguruan xehetasun gehiago lortu ahalko ditugu.

Lehenik eta behin, Rosek ahoskabearekin idazten duen beste mailegu bat *gente*¹⁶ (15) da. Etxartek hau ahostunarekin (*gende*, 1) jartzen du eta baita Leizarragak, Beriainek eta Etxeberri Ziburukoak¹⁷ ere. Mendigatxak eta Hualde Mayok, aldiz, *gente*¹⁸ idazten dute. Honen ondorioz, badirudi hitz honetan jada *nd > nt* bilakabidea burutua dela Erronkarin.

Honekin batera, Rosen gutunetan *abentuco* (15) aurkitu da eta Beriainen eta Leizarragaren testuetan ere badator baina beti bietan ahostunarekin¹⁹. Beranduago Mendigatxak ere *-t-* idazten du: *abentu* (*Mdg*, 129.orr). Gainera, Etxartek *abentuiaren* (14) erabiltzen du eta, honi esker, lekukotasun eta hizkera bakoitzak bere bilakabidea duela ondoriozta daiteke: esate baterako, Rosek *-t-* sartzen duenerako, Etxartek oraindik hitz batzuetan egitura zaharrari eusten dio, baina beste batzuetan, leherkari ahoskabea ematen du²⁰.

Bestalde, Rosen hizkeran fenomeno hau erabat finkaturik ez dagoela pentsatzera eramaten gaituzte *borondateaz* (7) eta Etxarten *vorondate* (4) adibideek. Axular, Beriain, Etxeberri Ziburukoa eta Leizarragak²¹ ere hau *-d-*rekin dakarte. Beranduago,

16 (9). gutunean *gende* darabil. Beharbada 2.2. atalean ikusitako jarreraren ondorioz.

17 Hona hemen adibideak: “eta Corteco gendeac” (*Ber*, 38.orr); “Hartaracotz gende” (*EZ*, 394.orr); “eta bere gendea igorric hil citzan ” (*Lç*, 286.orr).

18 Hona hemen adibideak: “canpoco gente” (*Mdg*, 128.orr); “guente anichez” (*HM*, 532.orr).

19 Hona hemen adibideak: “Carta demboretan eta abenduco” (*Ber*, 254.orr), “adbendua” (*Lç*, ikus bedi OEH).

20 Dena den, dena ezin dugu gure azterketaren alde jarri. Etxarten zubereraren “jatortasuna” oraindik ziurtatu gabe dago (ik. 1.5.). Baliteke Lapurdiko idazleengandik eraginak egotea. Horregatik, hau ere ondare zaharreko adibideak aztertzean, kontuan izan behar dugun egoera bat da.

21 Hona hemen adibideak: “eracutsi duçun vorondate” (*Ax*, 5.orr); “berce gauçac ceren aren vorondatea baitago” (*Ber*, 51.orr); “ceure vorondate” (*EZ*, 413.orr); “Eguin bedi bire vorondatea ceruan beçala

*Doctrina Uskarazen*²², aldiz, *borontatia* lekukotzen da (Gómez, 1991: 407) eta Mendigatxaren eskutizetan edo Hualde Mayoren testuan *borontate* (*Mdg*, 121.orr) /*borontatia* (*HM*, 538.orr). Orduan, Rosen gutunetan topatzen diren aldaketak oraindik “bariazio” txikiak direla iruditu ahal zaizkigu eta hauek erabat sistematikoa ez den egoera bat erakusten dutela. Eta Gómezek (1991) argitaratutako dotrinaren, Mendigatxaren edo Hualde Mayoren kasuak ikusita, hau soilik beranduago egonkortzen dela pentsa daiteke.

Dena dela, Mitxelenak 1970ean iragarri bezala²³, maileguez eman behar zuten gehiena emana dute jada. Horregatik, hurrengo puntuan ondare zaharreko kasuei helduko zaie, izan ere, metodologikoki eta diakronikoki lehentasuna haiena baita beti.

2.3.4. *n-/l-* ondoko herskariak ondare zaharretan

Ozen ondoko taldeen analisia osatzeko, atal honetan ondare zaharreko hitzei begiratuko diegu. Horretarako, erronkarieraz lekukotutako ondare zaharreko hitz guztien analisia hemen egitea ezinezko delarik, [erro monosilabikoa + atzizkia] bezalako elkarketak aukeratu ditugu, beraiek baitira zaharrenak ere (cf. Lakarra 1995). Honenbestez, CV(C) + CV osaerak aztertuko dira, “Trasken legea” ere (ik. 2.3.1.) gogoan dugularik. Beraz, espero da CV(C) + DV egitura zaharrena izatea eta hortik CV(C) + TV / V alormorfo berriak sortzea.

Has gaitezen Rosen *ongui* (9)-rekin. Kasu honetan, *on-* erroari atxikitzen zaion atzizkia DV ahostuna da, hortaz, “Trasken legea”k aurreikusitako forma zaharrena dugu. Honen alde, Axular, Beriain, Etxeberri Ziburukoa eta Leizarragaren *-gi*²⁴ amaierak topatzen ditugu. Aldiz, honen aurka, Ros beraren *onquy* (15) dugu eta baita Bonaparte, Mendigatxa²⁵ eta Hualde Mayoren *-ki*²⁶ ahoskabe ugariak ere. Lekukotasunen

lurrean-ere” (*Lç*, 298.orr).

22 Lekukotasun hau nongoa den zehaztea zaila da. Erronkarikoa edo Urzainkikoa izan daitekeela uste da. Nolanahi ere, Gómezek (1991) eztabaida hau bere artikuluan azaltzen du.

23 “Es evidente que, en materia de etimología, estamos cerca, demasiado cerca, de un límite: el de la accesibilidad de los medios actuales de reconstrucción. He repetido, demasiado quizá, una opinión que me parece difícil de refutar: en el estado de cosas actual, no hay más que dos modos de etimología vasca posibles. Están, de un lado, los préstamos, de linaje latino-románico en último término en la inmensa mayoría de los casos; queda mucho por aclarar, pero es más bien cuestión de detalle y de precisión. En otras palabras, no iremos mucho más lejos del estado actual, salvo por lo que respecta al rigor y a algún que otro descubrimiento aislado que todavía pueda hacerse.” (Mitxelena, 1970: 27).

24 Hona hemen adibideak: “ongui ethorria” (*Ax*, 5.orr); “eguitendituela ongui” (*Ber*, 253.orr); “Bethi ungui ethorria” (*EZ*, 19.orr); “vngui egueçue gaitz” (*Lç*, 296.orr).

25 Esan beharra dago *ongui* (bakarra) ere topatu dela. Horregatik, hau *fases sparitaren* erakusle da.

26 Hona hemen adibidea: “onki eskibitandaudan” (*Mdg*, 121.orr); “onqui aburritandaiceiner” (*HM*,

kronologia ikusita, *-gi* atzizkia zaharrena dela pentsa daiteke eta, ondoren, Rosen garaian *-k-* sartzen hasi zela Mendigatxaren gutunetan nagusi edo erabateko bilakatu arte. Hau argiago ikusteko, hitz gehiagorekin azterbide bera jarraitu da, baina ondoren aztertuko direnak Etxarten hitzak dira, egile honen gutunetan ahostun/ahoskabe lekukotasun gehiago aurkitu baititugu²⁷: zuberotarraren *alde* (8) etsenpluarekin bat, Axular, Beriain, Etxeberri eta Leizarragaren *-de* alomorfoak ditugu. Izan ere, Bonaparte, Mendigatxa eta Hualde Mayok *-te*²⁸ darabilte. Ondorioz, azken hitz honekin ere aurretik ikusitako egoera bera lortzen da. Baita Etxart *bildu* (8)rekin ere: gainerako iparraldeko idazleek *-du* erabiltzen dute eta Bonapartek edo Mendigatxak, berriz, *-tu*²⁹. Horregatik, adibideen datak ikusita, *-d-* *-t-* baino lehenago lekukotzen dela frogatzen da eta honek bat egiten du Mitxelenaren (1961) hipotesiarekin alegia, ahostuna zela forma zaharra eta gero Erronkari eta Zuberoan ahoskabetu.

Horrela, maileguetan ikusitako “bariazio” txikiak (ik. 2.3.3.) ondare zaharreko etsenpluetan ere aurkitu dira, ahoskabea nolabait sartzen ari dela erakusten digutenak. Eta leherkari ahostunarekin adibide gehiago aurkitzeagatik ere –baita garai bertsoko testuetan eta geroko *sparitak* ere– hauek zaharragoak izan daitezkeela erakusten da. Honekin batera, badira adibide batzuk euskararen historian herskari ahostunarekin bakarrik topatzen direnak: Rosen *andia* (7) eta *guelditu* (11). Honen ondorioz, aipatutako azken hauek atzizkiaren forma zaharra *-di* dela pentsatzera garamatzate, gramatikalizatu aurreko *-din-* erroarena zen bezala zalantzarik gabe:

Orain *hordi*, *geldi*, *handi* –seguru asko baita *erdi* eta, agian, *irudi* ere– bezalako *forma sparitak* kontuan izanik (ez da ***horti*, ***gelti*, ***hanti*, ***erti*, ***iruti*), *-di* zen (ez *-ti*) adjektibok egiteko atzizkiaren forma zaharra (cf. *-de* < **eden* : *-di* < **edin*). (Lakarra, 2013: 306).

Aurreko lekukotasunez gain, Rosek lau aldiz *vilgu* (7) darabil. Adibide hau Etxarten gutunetan ez topatzeagatik, ondorioztatzen da Rosek ezin izan duela honengandik hitz forma hau hartu. Hori dela eta, *l-* ostean erronkarieran espero ez den

536.orr).

27 Halaber, kontuan hartu 20.oin-oharrean esan dena.

28 Hona hemen adibideak: “Alde batetic” (*Ax*, 221.orr); “alde batetic” (*Ber*, 38.orr); “Ene alde othoi” (*EZ*, 276.orr); “Capernaum itfas aldecoan” (*Lç*, 290.orr); “mechediaren altez” (*Mdg*, 125.orr); “Jordanaren berce alteco” (*HM*, 533.orr).

29 Hona hemen adibideak: “vildu nahi du” (*Ax*, 218.orr); “Elkhar gana bildu” (*EZ*, 247.orr); “Eta bilduric” (*Lç*, 284.orr); “faitendra biltuz” (*Mdg*, 136.orr).

hetskari ahostuna lortu da. Izan ere, Etxeberri Ziburukoak *bilkhua*³⁰ dakartza eta, beraz, lekukotasun hau Erronkari eta Zuberotik kanpo ahoskabearekin aurkitu dela ikusten dugu. Horrenbestez, *Vilguk handi* eta *geldituk* bezala alomorforik zaharrena ahostuna dela erakusten du.

2.3.5. *n-/l-* ondoko hetskari ahoskabeak

2.3.2. atalean, fonologiaren eta morfologiaren arteko lotura azaldu da eta Aitzineuskaratik hona erlazioa aldatuz joateagatik, Euskara Modernoan bisilaboen egitura –monosilabikoen eta morfemen arteko erlazioa– eraldatzen da eta honekin inoiz -DV > -TV egitura ere. Hau hurrengo paragrafoetan erakutsiko da.

Ikusi den bezala, badaude arrazoiak “Trasken legea”ren alde jokatzeko, hots, aztertutako gutunetan aurkitu diren leherkariaren ahostun/ahoskabe alternantzien aurrean, DV egitura adibideak zaharrenak dira. Horren berme eta alomorfo berriek nola funtzionatzen duten ulertzeko, Kuryłowiczen lege klasikoak gogoratzekoak dira:

The fourth law: when a form undergoes analogical reshaping, the new form takes over its primary function, and the old form remains only in secondary functions. [...] The sixth law: a native form may be analogically reshaped under the influence of a nonnative form, especially if the non-native variety is more prestigious. (apud. McColl Millar, 2015: 105).

Kuryłowiczen arabera, alomorfo berriak aurrera eginez gero, hainbat eta testuinguru gehiagotan indartsu bilakatzen hasiko dira eta, honen eraginez, forma zaharra testuinguru isolatuetan bazterturik geldituko da. Beraz, hau guztia aintzat hartuz, DV egitura zaharra TV berrikuntzaren bidez ordezkatu da. Bestalde, berrikuntza gero eta hitz eratorri gehiagotan hedatzen hasiko da, azkenean forma berria nagusi eta usu bakar bilakatuz.

Horretarako, gramatikalizazioaz hitz egin dugunean morfemak lexikotik datozela onartu behar dela azpimarratu dugu, eta, honenbestez, morfemak erroitik hainbat ezaugarri mantendu izan dituela: fonetikan, semantikan... Baina beste batzuk, berriz, aldatu ohi dira (ik. 2.3.1.). Beraz, erronkariaren edo zubereraren aurkitzen diren -TV alomorfo berriak, beste hizkeretan ere aurkitzea espero da, baina euskalki bakoitzaren erritmoa eta hedadurak eragiten du ekialdeko bi hauen eta gainerako

30 Ikus bedi OEHN *bilkuia* sarrera.

hizkeren arteko banaketa. Hori dela eta, erronkarian eta zubereran abiadura handiagorekin orokortu dira *n-/l-* osteko leherkari ahoskabeak.

Herskarien ahostun/ahoskabe alternantziak maileguetan eta ondare zaharrekoetan badaudela erakutsi da, baina maileguek ezin dute erakutsi adibideen egituren erabateko zahartasuna eta, horregatik, ondare zaharreko adibidei lehentasuna eman behar zaiela nabarmendu nahi izan dugu (ik. 2.3.2.). Edonola ere, ezin da ahaztu hauetan ere ahostun/ahoskabe txandakatzeak topatu direla, baina ahostuna agertzen dela kontsonanterik zaharrena bezala. Honetan, jakina, gogoratzekoa da herskariz hasitako morfema hauek guztiak (DV) ezinbestean DVC erro lexiko zaharragoetarik datozela (ik. 2.3.1.).

Dena den, segurtasun eta zehaztasun gehiagorako, Rosen eskutitzak gainerako erronkariarazko testuekin konparatu dira eta hauetan astiroago zer gertatzen den ikusteko, Mendigatxaren gutunak eta Hualde Mayoren itzulpenak, biak ere XIX. mendearen akabuko lekukotasun zabalena, sakonago aztertzeko aukera izango da hurrengo atalean.

3. MENDIGATXA ETA HUALDE MAYO

2.3.4. atalean sumatu den moduan, ahoskabeak ugalduez doaz ondare zaharreko egituretan eta egoera honen adibide garbiago dira Mendigatxa eta Hualde Mayoren testuak. Horrenbestez, *onki, alte, biltu, galte, g(u)entu* etab. bezalako adibideak aurkitu dira (guztiak 6.2. eta 6.3. ataletan daude zerrendaturik). Etxart eta Rosen gutunetan, aldiz, hauetako batzuk ahostunarekin aurkitu dira, beren XVII. mendekoa kronologiaren zaharragoari dagokion moduan. Gogora, bestalde, badela beste argudio ezagun bat oraindik: *handi, aldi, erdi, ardi*, edo *hordi* (ik. 2.3.1.) bezalakoak euskararen historian ez dira inoiz ahoskabearekin lekukotu, ezta Erronkari eta Zuberoan ere. Honen alde Mendigatxaren *ongui sparita* ere dugu (ik. 25.oin-oharra).

Ondare zaharreko ahoskabeekin batera, Mendigatxa eta Hualde Mayoren idazkietan mendebaldean ahostunarekin diren zenbait mailegu ahoskabearekin aurkitu dira: *tenpra* (vs. *denbora*), *altare* (vs. *aldare*), *abentu* (vs. *abendu*). Hauen bidez, isoglosa argiak marraztu izan dira bi eremuen artean eta ekialdeko adibideak latinezko egitura zaharretik hurbilago egoteagatik, hauen leherkari ahoskabea hotsik zaharrena dela defendatu izan da oraintsu arte (ik. 2.3.1.eko Mitxelenaren aipua). Baina iritzi bera

partekatzen ote da *alterekin*? Mitxelenaren aipuan bertan ikusten da ezetz. Gainera, badira hainbat mailegu toki guztietan ahoskabearekin idatzi direnak –adibidez, *contra* baina inoiz ez ***condra/**gondra*– eta honek zalantzan jartzen ditu mendebaldeko ahostuntze berantiarrek edo honelako enigmatasun edo sistematikotasuna, gutxienez. Hortaz, ondare zaharrekoak kenduta, mendebaldean badira hainbat mailegu ahoskabearekin, ekialdean bezalaxe. Orduan, zer ahostundu dute mendebaldekoek? Erronkariaren *abentu* bezalako mailegu zaharrak? Zertarako edo zergatik? Eta ekialdean zergatik dugu beti *handi* eta ez ***hanti* espero genukeen bezala, baldin eta forma ahoskabeak balira zaharrenak? Honen inguruan gogoeta egitean, orainsu arte fenomenoaren alderdi bakoitza bere aldetik aztertu dela dirudi edota are gehiago dena, fenomeno honen alderdi osoak aztertu gabe utzi direla, hau da, maileguen eta ondare zaharrekoen arteko loturak/erkaketak egin gabe. Horregatik, lan honetan zehar “Trasken legea” eta gramatikalizazioaren garrantzia aldarrikatu dugu, beti ere ondare zaharreko morfemen jatorri eta bilakabidea kontuan hartzeko, ikusi baitugu dagoeneko, aztergai honetan ere ez dela erabateko etenik morfologiaren eta fonologiaren artean. Bestela, ez ginateke ohartuko aztertutako morfemak lexemetatik datozela eta gertakari hauek aintzat ez hartzeagatik, ahostun/ahoskabe fenomenoaren arazo fonologiko hutsa balitz bezala tratatu izan dela (ik. 2.3.2.).³¹

Rosen *-mentu* edo *gente* adibidei esker, ikusi da mailegu hauetan *n-/l-* osteko ahoskabea zaharrena ez dela eta hau are argiago da ondare zaharrekoetan. Esate baterako, ikerketa honetarako erabili diren lekukotasun erronkariarrek nahiz *alte* edo *onki* (baina Rosen eta Mendigatxaren *ongi* ere) esan, *handi -d-*rekin dakarte. Horrela, ***hanti* euskararen historian inoiz ez lekukotzeak Trasken (1995) hipotesia indartzen du. Gainera, *han-di*, *ar-di*, *er-di* eta *hor-diren -di* amaierak atzizki beraren kasuak direla onartzen baldin badugu, ***arti*, ***erti* zein ***orti* ere faltan direla ohartuko gara. Hau guztiagatik, *handik* pisu gehiago du gainerako TV bilkuren aurrean.

Beraz, Mendigatxa eta Hualde Mayoren bidez, ondare zaharretan ahoskabetzeak gehituaz doazela nabarmendu dugu. Halaber, esan gabe doa batzuk euskaraz orokorrak izatera hel daitezkeela, adibidez, “Trasken legea”ren oinarrian den *-de > -te* bilakabideko *uste*, *beste*, *urte*, *sute*, *arte-z* gainera mendebaldean ere badira. Honek zera

³¹ Ikusi dugunez, forma ahoskabeak itxuraz latinetik hurbilago egoteagatik, horiek direla zaharrenak euskaraz ere baieztatu da, baina 2.3.3.ko *pake*-ren kasu ezaguna gogoratzeak erakutsi digu irizpide hau ez dela batere zuzena eta ikerketa desbideratu duela.

erakusten du: berrikuntza are aurreratuago dela erronkarian edo zubereran mendebaldeko hizkerekin konparatuz. Edonola ere, TV hots segida bat morfologikoa – morfema zahar/fosildua– denean hotsik zaharrena ahostuna dela frogatu da, baina honek ez du esan nahi talde morfologikoak ez direnean –maileguetakoak bereziki– gauza bera gertatu behar denik. Beste era batean esanda, Euskara Zaharrean *-mentu* > *-mendu* gerta zitekeen, baina honen kontra, *contra* > ***condra* aldaketa inoiz ez da gauzatu. Orduan, honek erakusten du ahostun > ahoskabe berrikuntzan maila diakroniko, fonetiko, soziolinguistiko... (oso) desberdinak daudela.

Argi dago erronkarian ahoskabetzea ugaldiaz doala ondare zaharreekoetan eta baita maileguetan ere, eta hau Mendigatxa eta Hualde Mayorekin guztiz ziurtatzen da. Halaber, [erronkaria eta zuberera *vs.* gainerako dialektoak = herskari ahoskabeak *vs.* ahostunak] lotura egitea ez da zuzena, behin eta berriz errepikatu den bezala, badirelako ahoskabedun mailegu asko mendebaldean inoiz ez direnak ahostundu. Eta ekialdean, ordea, badira egitura zahar batzuk inoiz ez direnak ahoskabe bilakatu –*handi* eta *r-ondorengoak*, adibidez–. Horrenbestez, ahostuntzearen edo ahoskabetzearen arabera ekialdea eta mendebaldea erabat desberdintzea akats larria litzateke diakronikoki behintzat.

Nolanahi ere, fenomenoak analisi morfologiko zaharraren aztarna edo zantzuren bat gordetzen duenean, hau da, morfemen artean banaketa bat suma dezakegunean, Mitxelena ikusi bezala, leherkari ahostunek dute hotsik zaharrena izateko aukera gehien. Izan ere, Mitxelena ohartzen da antzinako egitura morfologiko fosilduaren aztarna honetaz:

Pero acaso se pueda suponer también que se trataba de un tipo de lengua en que la oposición quedaba suspendida en esos contextos, en los cuales las oclusivas se pronunciaban uniformemente sonoras (o lenes). En este supuesto, las nuevas formaciones y los préstamos que presentaban grupos formados por nasal o *l* + oclusiva se seguirían acomodando por bastante tiempo al tipo normal, siendo el roncalés y el suletino los dialectos que primero abandonaron esta práctica. Esto quiere decir, naturalmente, que *alte* y *galte* p. ej. eran palabras complejas que habría que analizar *al-te* y *gal-te* del mismo modo que según toda probabilidad *igante* era *igan-te*. (Mitxelena, 1961: 355).

Hortaz, lehen esan bezala, erronkarierak pairatutako ahoskabetzeaz hainbat aditu baliatu dira ekialdea gainerako dialektoetatik bereizteko. Baina mendebaldean ere ondare zaharrean ahoskabeak izanik, zeri begiratzen zaio? Kopuruari? Ala maileguetako –latinetik hurbilagoko omen diren– zenbait ahoskaberik? Honen aurrean, kontu morfologikoa noiz eta nola bihurtzen den fonetikoa litzateke garrantzitsuena eta, horretarako, mailegu zein ondare zaharrekoei begiratu behar zaie, batez ere azken hauei, noski. Hala ere, egoera diglosikoa aintzat hartzea ere ezinbestekoa da, lan honetan ahoskabetze moderno batzuk kontu soziolinguistikoen eraginez gertatu direla erakutsi delako (ik. 2.3.3.). Erronkarieraren kasuan, morfologiatik fonetikarako jauzia ondare zaharrekoetan bakarrik ziurta daiteke, berrikuntza are indartsuagoa bihurtzen baita Mendigatxa eta Hualde Mayoren testuetan. Hori dela eta, -DV > -TV berrikuntzak biderkatuz joan direla ikusi da –2.3.5.ko Kuryłowiczen lege klasikoak jarraituz– lege fonologiko huts (ia) bilakatuaz. Gainera, *arte* bezalakoak Euskal Herri osoan gertatu direla azpimarratu dugu. Beraz, honek erakusten ditu bilakabidearen erritmo eta hedadura diferenteak. Dena den, erronkarierako ahoskabetasunaren ugaritasunak iradokitzen du hizkera honetan berrikuntza hau lehenago zabaldu zela dagoeneko EBZ-az geroztik eta muturrera eraman dela ekialdeko dialekto hauetan berrikuntzen kopurua biderkatuz. Honen ondorioz, morfologikoa zena fonetikoa izatera eta ondare zaharrekoetatik maileguetara igaro da³².

4. ONDORIOAK

Lan honetan, Gabriel Etxart eta Miguel Rosen biografiak eta eskutitzak azaldu ditugu lehenik. Horrela, euren bizitzaz orain arte zer jakin den eta gutunetan zer eztabaidatzen den argitu da (ik. 1). Ondoren, bereziki lanaren bigarren atalean, corpusaren deskribapenari heldu diogu eta, honekin batera, testu bakoitzean biltzen diren hizkerak zehaztu ditugu (ik. Irudia 1.). Ikusi bezala, gutun hauetan zuberera eta erronkaria lekukotzen dira, baina gure asmoa hasieratik batez ere erronkaria azterketara mugatzea zen. Hori dela eta, gehienbat Rosen testuen analisisia egin dugu, nahiz Etxartenak konparaketetarako baliogarriak izan zaizkigun.

Analisiari dagokionez, hau bi ataletan banatu dugu: alde batetik, (15).gutunaren berezitasunez jardun dugu (ik. 2.2.) eta honek berebiziko garrantzia duela konturatu gara, Rosek Etxarten hizkerara hurbiltzeko asmoz zenbait hitz moldatzen dituela ohartu baikara. Horren ondorioz, Rosen gainerako testuetan aurkitu ez diren hitzak (A)

³² Urrestarazuren (2021) hipotesia (ondo ulertu baldin badugu) beste bat dela dirudi.

zirriborroan topatu ditugu eta berezitasun honek ikerketaren bigarren atalean eragina izan dezakeela jabetu gara. Honen ostean, *n-/l-* ondoko leherkarien bilakabideaz mintzatu gara. Fenomeno honek bi interpretazio izan dituela gogoratu dugu: batetik Mitxelenak (1961) dagoeneko tradizionalizat zuen hipotesia, hau da, erronkariak euskara zaharreko herskari ahoskabea gorde duela -RT- taldeetan. Bigarrenik, Mitxelenak (1961) honi ematen dion ikuspegi berria, ondoren Lakarra (2013, 2014) hiru argudioen bidez –geografikoa, berreraiketazkoa (aitzineuskara klasikoan azpi sailek duten paralelismoa bortitz/ahul oposaketaren inguruan), eta “Trasken legea” eta gramatikalizazioa– indartzen duena (ik. 2.3.1.). Lakarra 2013ko azalpen proposamen honekin bat egin eta zabaldu dugu gure lan honetan. Horretarako, Rosen sudurkariaren eta albokariaren ondoko herskariak bildu eta hauen gaineko azterketa burutu dugu, hainbat zertzelada gehituaz eta emaitzak geografikoki eta diakronikoki hedatuz.

2.3.2. Lehenik eta behin, jasotako adibide guztiak maila berean ez daudela azpimarratu dugu, etsenpluen artean, maileguak eta ondare zaharreko hitzak bereizi behar baitira. Honen aurrean, guk ondare zaharreko ei arreta gehiago jarri diegu hola baita egoki metodologikoki. Nolanahi ere, maileguetan hauteman dugun ahostun/ahoskabe alternantzia ez da baztertu eta hau oso bestelako arrazoi baten eraginez gertatu dela ondorioztatu dugu. Hots, Betolaza eta Beriainen testuetan ikusi bezala, arazo soziolinguistikoen eragina –erdal maileguak kultismo gisa hartu izana– erakutsi dugu (ik. 2.3.3.).

2.3.4. Ondoren, ondare zaharreko adibideetan topatutako leherkarien ahostun > ahoskabe bilakabideak zehaztu ditugu, esate baterako, Rosek *ongi* baina *onki* ere erabiltzen duela markatuaz. Orobat, Mendigatxa eta Hualde Mayoren itzulpenean ahoskabeak nagusi direla nabarmendu dugu. Halaber, Etxarten eskutitzetan ondare zaharreko etsenplu gehiago aurkitzeagatik eta Rosen testuetan ikusitako aldaketa ziurtatzeko, hauekin konparaketa gehiago egin ditugu. Horrela, *alde* baina Mendigatxa edo Hualde Mayoren *alte*, eta *bildu* baina Mendigatxaren *biltu* desberdintasunekin topatu gara. Ebidentzia hauen ondorioz (eta kronologia ere aintzat hartuz), Traskek (1995) azaltzen duen DV > TV berrikuntza gertatu dela euskara osoan (nahiz aurrerago jo Erronkari eta Zuberoan) ohartu gara. Eta azalpen honi are indar gehiago ematen dio ***hanti*, ***alti* edo batez ere ***arti* Erronkarin eta Zuberoan ere inoiz ez lekukotu izanak.

2.3.5. Aurretik DV > TV / V bilakabideaz hitz egin dugunez, berrikuntzak nola hedatzen eta nagusi bihurtzen diren azaldu dugu Kuryłowiczen lege klasikoaren bidez. Horrela, herskari ahostunak nola urritzen diren eta alormofo ahoskabeak nola zabaltzen

diren eta ia bakar bilakatzen zehaztu dugu.

3. Hala ere, Ros eta Etxarten gutunetan aurkitutako ahostun > ahoskabe aldaketa corpus berankor eta zabalagoan ugaldooz doala ikusarazteko, hauen gaineko analisisa ere egin dugu. Gauzak horrela, ahoskabedun ondare zaharreko askoz adibide gehiago aurkitu ditugu: *onki, alte, biltu, galte, g(u)entu...* Hala eta guztiz ere, hauetako batzuk Etxart-Ros gutunerian ahostunarekin biltzeagatik, lekukotasunen kronologiak DV zaharrena dela erakusten digu. Eta Mendigatxa eta Hualde Mayoren lanetan oraindik *handi, aldi* edo *ardi* aurkitzean, aurretik ikusitako DV > TV / V fenomenoaren ziurtatzen dela ondorioztatu dugu.

Guzti honek zera erakusten digu, ahostun > ahoskabe fenomenoaren morfologikoa – zehazki, alomorfikoa– izan zela noizbait, fonetikoki orokortuaz joan zela gero eta ondare zaharretik maileguetara hedatu dela funtsean, hizkuntz kontaktuan arruntenetan ohi bezala. Alabaina, kultismo edo erdi-kultismoetan bai erronkariarrek baina baita beste dialektoetako idazleek ere erdara modernoaren diglosiaren eraginak “laguntzen” edo behartzen dituela ahoskabearen alde jokatzeko antzeman dugu. Ondorioz, lan honetan egin den hurbilketa arabera, ondare zaharreko CVC-DV egiturak beste edozein baino lehenagoko dira. Edonola ere, etorkizunerako hau sakonkiago aztertzea eta corpus handitzea eginkizuna beharrezkotzat ikusten dugu; eta ez soilik Rosen gutun laburrotan baina baita Etxartenetan eta, beraz, baita zubereraz zer gertatu den astiroago ikertzea ere.

5. BIBLIOGRAFIA

- Azkue, R.M^a (1931): “Particularidades del dialecto roncales”, *Euskera*, XII, 207-406.
- Bilbao. G. (a.g): “Etxart-Ros gutuneria”, *Monumenta Linguae Vasconum III. Jardunaldiak*, UPV/EHU, Gasteiz: 2016ko abenduaren 20an.
- Gómez, R. (1991): “Erronkarierazko Dotrina Argitaragabe Bat: Edizioa Eta Azterketa”, *ASJU*, urtarrilak, 375-426. <<https://doi.org/10.1387/asju.9191>>.
- Hualde Mayo, P. (1934): “Evangelio de San Mateo traducido al vascuence roncalés de Vidángoz”, *RIEV*, 527-548.
- Idoate, F. (1977): *La comunidad del valle de Roncal*, Iruña: Nafarroako Diputazioa.
- Irigoyen, A. (1957): “Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección Maria de Azkue”, *Euskera* II, 119-169.
- Janda, R. D. (2003): “Phonologization” as the Start of Dephonetization –Or, On Sound Change and its Aftermath: Of Extension, Generalization, Lexicalization and Morphologization”, in Brian D. Joseph & Richard D. Janda (arg.), *The Handbook of Historical Linguistics*, Oxford, Berlin, etab.: Blackwell.
- Lakarra, J. A. (1995): "Reconstructing the root in Pre-Proto-Basque" in J. I. Hualde, J. A. Lakarra & L. Trask (arg.), *Towards a history of Basque Language*, John Benjamins: Amsterdam-Philadelphia, 189-206.
- , (2013): “Euskararen historiaurrearen berreraiketa sakonagorako: forma kanonikoa, tipologia holistikoa, kronologia eta gramatikalizazioa”, in R. Gómez, J. Gorrochategui, J. A. Lakarra eta C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, 275-234, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU.
- , (2014): “Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz”, in I. Epelde, *Euskal dialektologia: lehena eta oraina. ASJU-ren Gehigarriak* 60, Leioa: UPV/EHU, 155-241.
- , (2016). “Gramatikalizazioa, morfemen forma kanonikoak eta berreraiketa morfologikoaren bide berriak”, in G. Aurrekoetxea et al. (arg.), *Txipi Ormaetxea omenduz. Hire bordatxoan*, Leioa: UPV/EHU, 175-192.
- , (2018): “Euskararen Historiaurrea”, in I. Igartua, J. Gorrochategui and J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 23-229.
- Leizarraga, J. (1990): *Jesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Martinet, A. (1950): “De la sonorisation des occlusives initiales en basque”, *Word* 6, 224-233. (= “La reconstruction structurale: les occlusives du basque”, in *Économie des changements phonétiques. Traité de phonologie diachronique*. Francke, Berne 1955, 370-388).
- McCull Millar, R. (2015): *Trask's Historical Linguistics* (3rd ed.), Abingdon: Routledge.
- Mitxelena, K. (1954): “La posición fonética del dialecto vasco del Roncal”, *Via Domitia*, 1, 130-157. In J. A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.), *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, *ASJU-ren Gehigarriak* 10, Donostia, 1988, 273-297.
- , (1955): “La Doctrina Cristiana De Betolaza”, *ASJU*, urtarrilak, 41-60. <<https://doi.org/10.1387/asju.7141>>.
- , (1957): “Las antiguas consonantes vascas”. Berrarg.: *SHLV*, 166-189.
- , (1961): “Fonética Histórica Vasca”, *ASJU*, urtarrilak. <<https://doi.org/10.1387/asju.8531>>.
- , (1970): “Nombre y verbo en la etimología vasca”, *Fontes Linguae Vasconum*, 4, 67-94.

- Mitxelena, K., Beloqui, J. J., Elósegui, J. & Sansinenea de Elósegui, P. (1953): “Contribución al conocimiento del dialecto roncalés”, *BAP*, 9, 499-536 [= *SHLVI*, 246-272].
- Mounole, C. & Gómez, R., (2018): “Euskara zahar eta klasikoa”, in J. Gorrochategui, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 469-541.
- Orotariko Euskal Hiztegia (OEH): <https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oehberria&task=bilaketa&Itemid=413&lang=eu-ES> [2022/05/25].
- Pagola, R. M., Iribar, I. & Iribar, J. J. (1997): *Bonaparte ondareko eskuizkribuak*, Bilbo: Euskal Ikaskuntzen Institutua.
- Trask, R. L. (1995): “On the history of the non-finite verb forms in Basque”, in Hualde *et. al.* (arg.), 207-234.
- Ulibarri, K. (2013): “External History. Sources for historical research”, in M. Martínez Areta (arg.), *Basque and proto-basque: language-internal and typological approaches to linguistic reconstruction*, Frankfurt: Peter Lang, 89-117.
- Urrestarazu, I. (2021): *Gogoetak Euskara Batu Zaharraren hausturaz*, Gasteiz: UPV/EHUko Master Amaierako Lana.

6. ERANSKINA

Miguel Ros, Mendigatxa eta Hualde Mayoren *n-/l-* osteko leherkariez baliatu garezuz analisia egiteko, jarraian zerrendatzea aproposa deritzagu.

6.1. Miguel Rosen [ozen + hers.] taldeen zerrenda

<np>: *amplo* (13), *inpedizen* (9), *conpon* (9), *cumplitu* (11).

<lp>: *culpa* (17).

<nb>: *aynbat* (9).

<nt>: *solamente* (7), *patente* (7), *junta* (7), *sentencia* (9), *contra* (9), *diferente* (9), *intencione* (9), *ventajaric* (9), *aconteçiçen* (9), *prendamiento* (9), *puntualqui* (9), *çoyntan* (9), *jaunarentaco* (9), *ontan* (9), *eguinte[n]* (9), *tanto* (11), *instrumento* (11), *puntu* (11), *Parlamentuyac* (13), *juntamentu* (15), *espantaturic* (15), *entelegatuec* (15), *tinteroan* (15), *gente* (15), *abentuaren* (15), *galanta* (15), *presentac* (17).

<lt>: *faltatu* (9).

<nd>: *respondatu* (7), *vorondate* (7), *sindiquea* (7), *emendic* (7), *andia* (7), *prendamiento* (9), *azienda* (9), *çinduten* (9), *gendec* (9), *guelditu* (11), *aldeti* (11), *demendatu* (13), *entendaturic* (15), *gubernamenduco* (15).

<ld>: *molde* (15).

<nk>: *Errorncariti* (7), *concluy* (9), *encargaturic* (11), *onquy* (15).

<ng>: *emengo* (11), *nongo* (11), *desengañazen* (15), *estrangerequi* (15), *guengati* (15), *ongui* (17).

<lg>: *vilgu* (7), *algoazile* (15).

6.2. Mendigatxaren [ozen + hers.] taldeen zerrenda

<np>: *cunplitako*, *inprentatra*, *anpolla*.

<nb>: *enbarazatruk*, *tranviatic*, *sonbreroak*.

<lb>: *Albertencia*, *salbazaliaren*, *errebolbi*.

<nt>: *tenpran*, *pensamentuan*, *borontate*, *sentimentureki*, *kantatandein*, *arrenta*, *ssutan*, *consentitu*, *sontotunei*, *saintiuer*, *gentia*, *mentian*, *ssunto*, *sendimentu*, *sakramentu*, *intencionia*, *abentu*, *alimentu*, *permentinaz*, *erremientez*, *tinte*, *entelegatra*, *mantria*, *solamente*, *aumenta*, *arrepentitako*, *kantu*, *mente*, *ygantiak*, *parentesisen*, *tratamentu*, *santifikadeila*, *tentacionia*, *llantoka*, *prometimentiuak*, *parkamentiuuan*, *tonto*,

consentitrukssa, gentu, ñontik.

<lt>: *faltaren, altariar, ugaltiaz, saltako/saltutein, bulto, bordaltu, bueltadeinartio, alte, galteguiteko, biltuz, eltu, galtu, saltucion.*

<nd>: *candamanian, eskandalo, senditunion/sendi, mendian, sendimentu, mandua, mundu, acienda, candeleraazko, bendicioniak, mandozainareki, gomendiuaren, errespondituzaun, andi, indar.*

<ld>: *moldiaz, saldoak, espaldan, aldi, alda.*

<nk>: *anque, franko, komunkisse, arrankatako, onki.*

<lk>: *alkateri, kalkadozkian.*

<ng>: *Jangeiko, engañatan, errenglon, ongui.*

<lg>: *bordalgiua, bilgune, zalge.*

6.3. Hualde Mayoren [ozen + hers.] taldeen zerrenda

<np>: *cumplitruc, tempru, trompeta, campo, complacimentu, temploren, componizte, recompensa, comparacioneric, acompañaatruc, tempestade, compasione, compadecitancen.*

<nb>: *miembruetaric, combeni, conbertitiaz.*

<lb>: *alborotatruc, salbaguitzazu.*

<nt>: *guente, cumplimentuia, borontatia, pensamentu, entrañetan, inocenten, cuidamentuerequi, presentiac, contra, cinturara, aposentuan, intencionia, erresistimentu, asientua, juramento, entregadazaizula, contrariuarequin, aburrimentu, mandamentu, saintiuan, instantian, complacimentu, tentacinia, benabenturanrequin, gentilec, presente, mantenataco, alimentuac, discurrimenturen, añadimentuz, santiuac, cimentu, discurrimentu, sontontandu, multitud, instantian, presentazte, encontriudara, centuriaco, calenturarequin, atormenta, contatucein, puntuberian, contrario, mantenadazabein, prudente, conturequin, entregatendu.*

<lt>: *adulterioric, bueltatiala, multitud, altarian, sepultura, galteguiten, eltucen, alteco, galtia, altacan, guentu, saltu, biltra, ugaltetaco.*

<nd>: *engrendatucion, erresponditucein, predicatandu, mendico, sandaliac, mundu, tratatandu, pretenditandionari, escandalo, condescenditucion, encomendatu, endemoniatuac, candelero, condenada, acabatandu, albertitandu, fabricatandu, fundatruc, errecibitandu, erdeitandu, senda, sontontandu, sosegatandu, padecitandu,*

confirmatandu, Libratandu, erresucitatandu, estimatandu, arrendazalia, entregatendu, andia, indarrez.

<ld>: umildiac, moldia, soldadu, saldo, aldeatan, galdein.

<nk>: encaminatanztolaric, zancopetaco, encomendatu, encarcelatruc, banco, onqui.

<ng>: aingurubat, langosta, Janguecuaren, Ebangeliua.